

Espteia: 2025ES020005
Erref: K.G

ZUZENeko DIRULAGUNTZA IZENDUNA EMATEARI BURUZKO HITZARMENA

Hondarribian, 2025eko irailaren 4an

BILDU DIRA:

Batetik, Igor Enparan Araneta [REDACTED] NAN zenbakia duena, Hondarribiko Udaleko Alkate gisa.
Bestetik, Jon Mirena Arruti Irastorza NAN [REDACTED] duena, eta helbidea: Bidasoa kalea 11n, Hondarribian.

PARTE HARTZEN DUTE:

Lehenengoak Hondarribiko Udalaren izenean, Toki- Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean emandako eskumenez baliaturik.

Bigarrenak bere izenean eta **Ama Guadalupekoa ikastetxea** ordezkatzuz, IFZ: R2000050A duena, eta helbidea: Bidasoa Kalean 11n, Hondarribian.

Bi aldeek elkarri nahiko gaitasuna aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko, eta horretarako

AZALTZEN DUTE:

I.-Gu ere bertsotan: Bertsolaritza eta ahozketasun proiektua, 2024-2025 ikastaroa, Hondarribian euskararen erabilera bultzatzeko.

II.- Ama Guadalupekoa ikastetxeak dirulaguntza eskaera aurkeztu duela. Eskaeraren proiektua hurrengo da: Bertsolaritza eta ahozketasuna: Gu ere bertsotan.

III.- 2025eko irailaren 4ko 2025/2639 Alkate Dekretuaren bidez, erabaki da zuzeneko dirulaguntza izenduna Ama Guadalupekoa ikastetxeari ematea azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a). artikulua kontuan hartuta.

IV.- Azaldutakoaren arabera, Hondarribiko Udalak eta **Ama Guadalupekoa** ikastetxeak erabaki dute hitzarmen hau sinatzea. Hitzarmena ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldean konpromisoak dirulaguntza ematea burutu dadin.

KLAUSULAK:

Lehengoa: Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da aldeen eskubide eta betebeharrak finkatzea, 2025/2639 Dekretuaren bidez emaniko dirulaguntzari dagokionez. Dirulaguntza horren xedea da azaldutako proiektuaren finantzaketa: Gu ere bertotan: Bertsolaritza eta ahozketasun proiektua.

Bigarrena: Eskumena.

Aurreko klausulan jasotako helburua, hau da, dagokiona, legeak udalari ezartzen dizkion eskumenen barruan sartzen da, araudia honako hau izanik:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki- Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen, 25. artikulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 17 .1.artikulua eta Lehenengo Xedapen Iragankorra.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa, 13,22 eta 28. artikulua.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onartzen duena,
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, 47. artikulutik 53. artikulura.

Hirugarrena: Aurrekontua eta finantzazioa.

Dirulaguntzaren gehieneko diru-kopurua 3.840,87 eurokoa izango da, aurrekontuko 1.0204.481.05.335.10. 2025 (8771) partidaren kontura, Partida hori izenduna izatea aurreikusi da Hondarribiko Udalaren Aurrekontua Orokorrean 2025. urterako.

Laugarrena: Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunean eta **2025eko irailaren 15ean amaituko da**. Diruz lagunduko diren gastuak 2024ko irailaren 15etik 2025eko irailaren 15era artekoak eginikoak izango dira.

Bosgarrena: Hondarribiko Udalaren konpromisoak.

Hitzarmen honi jarraiki Hondarribiko Udalak harturiko konpromisoak honakoak dira:

a) **Ama Guadalupekoa Ikastetxeari 3.840,46** euroko dirulaguntza ordainduko zaio, eta era honetan:

% 100, 3.840,85 euro, proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren.

Bosgarrena: Dirulaguntzaren Ama Guadalupekoa Hondarribiko ikastetxea onuradunak harturiko konpromisoak.

Hitzarmen honi jarraiki dirulaguntzaren onuradunak harturiko konpromisoak honakoak dira:

a) Gu ere bertotan: Bertsolaritza eta ahozketasun proiektua. garatuko du, aurkezturiko dokumentazioaren arabera. Proiektua hitzarmen honekin batera doa eranskin gisa, eta aurreikusiriko epean gauzatuko da.

b) Beharrezko diren udal baimenak edo bestelakoak eskatu beharko ditu.

c) Hondarribiko Udaleko Dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzaren eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:

- Dirulaguntza eman duen erakundean justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta dirulaguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.

- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.

- Beste dirulaguntza batzuk jasotzen baditu dirulaguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinaraziko beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.

- Frogatu beharko du, ordainketa bakoitza egin aurretik, egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan (edo egiaztapenaren mende jarriko da).

- Jasoriko diru-kopuruak aplikatu izanaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar.

d) Jasoriko diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako balizko egoerak gertatzen badira:

1.- Dirulaguntza eskuratzea horretarako beharrezkoak diren baldintzak faltsutuz edo berau eskuratzea eragozten dutenak ezkutatuz.

2.- Dirulaguntza ematearen arrazoiak den helburu, jarduera edo egitasmoa ez betetzea, izan osotasunean edo zati batean.

3.- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo nahikoa ez betetzea, lege honen 30. artikulua zehazten dituen baldintzen arabera eta, hala badagokio, dirulaguntza honen arauen arabera.

4.- Aurreikusitako finantza-kontrol eta egiaztapen jarduketari aurka egitea, aitzakiak edo trabak jartzea, edo ezetza ematea; hala nola dokumentuek kontularitza, erregistro eta gordetzearen betebeharrak ez betetzea.

5.- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikulua zehazten dituen beste balizko kasuetan.

e) Euskararen alorreko klausulak: Dirulaguntzaren entitate onuradunak dirulaguntza bidez eginiko ekintzen komunikazioetan Hondarribiko Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko udal ordenantzaren 30. artikulua honako irizpideak errespetatu beharko ditu:

“Hondarribiko Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren jardun subentzionaletan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo- euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko



Hondarribiko
Udala

zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabe litezkeenak elebidunak baitira".

Jardueran bertan eta haren berri emateko erabilitako hedabide guztietan (irriti, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) argi adierazi beharko da Hondarribiko Udalaren lankidetzat. Diruz lagundutako **Ama Guadalupekoa ikastetxeak** publizitate eta kanpo-komunikazio oro gutxienez euskaraz egingo da, aipatutako udal ordenantza betez.

f) Berdintasunerako klausula: Dirulaguntzaren **Ama Guadalupekoa Ikastetxeak** onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, ezarritako oinarriak eta eginkizunak, emakume eta gizonen egiazko berdintasunerako. Baita 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, ezarritakoak ere.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol eta genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

g) Ingurumenaren alorreko klausula: Dirulaguntzaren **Ama Guadalupekoa ikastetxeak** onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak kontuan hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalei, espezieak eta prozesu ekologikoei), (4) baliabide naturalak aurrezte (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehienezko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herriarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Zazpigarrena: Dirulaguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa.

Hondarribiko Udalak, euskara saileko teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta dirulaguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta dirulaguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.

Justifikazio-kontua emateko "Dirulaguntzak justifikatzeko orria" aurkeztu beharko da Hondarribiko Udalaren web orriko Sarrera Erregistroan, edo BAZen (Biztanleen Arreta Zerbitzua) -bakarrik onuraduna pertsona fisikoa bada-.

Inprimaki hori eskuragarri dago aipatutako web orrian, BAZen eta sail eskudunean,. Eskatzaileek aipatutako inprimakia aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta. Eskabideak atal hauek ditu (bete beharrekoak):

A) Atal teknikoa:

- Zein jarduera egin diren adieraziko da, datak, parte hartzaileak eta jarduera horietarako erabilitako zenbatekoak zehaztuta.

- Jarduera bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako dirulaguntzak edo laguntza ekonomikoak egiaztatzen dituzten agiriak ere aurkeztuko dira edo, horrelakorik ezean, ez dela beste dirulaguntzarik jaso egiaztatzen duen erakundearen erantzukizunpeko adierazpena.

- Dirulaguntzaren xedea zen jarduera burutu dela eta aurkeztu zen proiektuaren arabera egin dela egiaztatzen duen egiaztagiria.

- Jarduera egin dela frogatzeko dokumentazio grafiko edo ikus-entzunezkoa ere aurkeztuko da.

B) Atal ekonomikoa:



Hondarribiko Udala

- Jardueraren diru-sarrera eta gastuen egoera aurkeztuko da, diruz laguntzen ahal den xedeari buruzkoak, osotasunean zehaztuta, bertan adieraziz bai gastu osoa bai eta jarduera egiteko jasotako diru-sarrera guztiak.

- 2024ko irailaren 15etik 2025eko irailaren 15erara arte egindako gastuen zerrenda zenbakitua, jatorrizko fakturak eta frogabaliok bera duten gainerako dokumentuekin –baliozkoak izango dira merkataritza trafikoko juridikoan edo administrazioan eraginkorrak izango dira-, arauz ezarritako baldintza eta, dagozkien ordainketa-agiriez gain. Arestian esan bezala, justifikazioa "Dirulaguntzaren justifikazioa" orria Hondarribiko Udalaren web orriko sarrera-erregistroaren bidez aurkeztu beharko da.

Fakturek dirulaguntzaren xedea justifikatzeko balio dezaten, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako fotokopiak izatea.

- Fakturak xehetasun osoz islatu beharko du zein kontzeptu fakturatu den, eskuratutako ondasunak edo zerbitzuak adierazita, eta horiek zuzeneko lotura izan behar dute diruz lagundutako jarduerarekin.

- Fakturak 2013ko otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuan, (fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duen horretan) eta 27/2018 Foru Dekretuan (urriaren 30ekoan, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzekoan) eskatutako baldintza teknikoak bete beharko dituzte:

- 1- Faktura zenbakia eta, hala badagokio, seriea.
- 2- Bidaltze data.
- 3- Fakturaren igorlearen nahiz hartzailearen (onuraduna) izena eta abizenak, sozietatearen izena.
- 4- Fakturaren igorlearen nahiz hartzailearen IFZ eta helbidea.
- 5- Jardueren deskribapena eta egite data.
- 6- Aplikaturako zerga-tasa eta BEZaren zerga kuota.
- 7- BEZa salbuetsita duten kasuetan, salbuespen hori xedatzen duen araua.

- Fakturak diruz-lagundu den jarduera edo egitasmoa burutu den epekoak izan beharko dira.

- Pertsonal-gastuen kasuan, Kotizazioen Likidazioen Zerrenda eta Langileen Zerrenda Izenduna eta, nomina eta 110, 190 atxikipen-ereduak aurkeztuz justifikatuko dira.

Arestian aipaturiko atal horiek guztiak ez dituzten fakturak ez dira aintzat hartuko dirulaguntzaren justifikazioan.

- Era berean, fakturekin batera aurkeztuko dira haiek ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak. Egindako gastutzat joko da justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena.

Zortzigarrena: Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Egindako gastu moduan hartuko dira (data)(e)tik (data) bitarte egindako ordaintzeko obligazio guztiak; dirulaguntza zurrizko epemuga amaitu baino lehen ordainduta egon beharko dute.

Gastuak egiaztatzeko, fakturak eta frogabaliok baliokidea duten gainerako dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta agiri horiek baliozkoak izan beharko dute merkataritzako trafikoko juridikoan edo administrazio-eraginkortasuna izan beharko dute, araudian ezarritako moduan.

Diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak hornitzaile desberdinen gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu, obrarako konpromisoa hartu, zerbitzua eman edo ondasuna



Hondarribiko
Udala

entregatu aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan ez badago horiek egiten, ematen edo hornitzen dituen behar adina erakunde, edo salbu eta gastua lehenago egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen artetik aukeraketa egiteko (justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzaren eskabidean aurkeztu beharko dira), efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta berariaz justifikatu beharko da memoria batean, proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez bada.

Diruz lagundu ahal izango dira diruz lagundutako proiektua egiteko finantza-gastuak, aholkularitza juridikoko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak eta peritu-gastuak, bai eta administrazio-gastu espezifikoak ere, baldin eta zuzenean lotuta badaude diruz lagundutako jarduerarekin eta jarduera behar bezala prestatzeko edo gauzatzeko ezinbestekoak badira.

Honako gastu hauek ez dira inola ere diruz lagunduko:

- a) Banku-kontuen interes zordunak
- b) Interes, errekaratu eta zehapen administratibo eta penalak.
- c) Prozedura judizialen gastuak.

Ondasun inbentariagarrien amortizazioari dagokionez, amortizazio-gastua diruz laguntzeko modukoa izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Dirulaguntzek ondasunak erosten lagundu ez izana.
- b) Amortizazioa orohar onartuak diren kontabilitate-arauen arabera kalkulatzeko.
- c) Kostua diruz lagun daitekeen aldiari buruzkoa izatea soilik.

Bederatzigarrena: Dokumentazioa aurkeztea.

Aurreko atalean aipatutako dokumentazioa aurkezteko epea, **2025eko irailaren 15ean amaituko da.**

Hamargarrena: Bateragarritasuna beste dirulaguntza publikoekin.

Hitzarmen honek arautzen duen dirulaguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik eta/edo pribatuetatik datozen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

Dena den, dirulaguntza hau bateraezina da helburu bererako Hondarribiko Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako dirulaguntzak edo laguntzak hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo dirulaguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena udalaren departamentuek edo organismo autonomoek dirulaguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan dirulaguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

Hamaikagarrena: Azpikontratazioa.

Onuradunak hirugarrenekin azpikontratatzeko duen diruz lagundutako jarduerak ez du gaitasun % 50. Inola ere ezingo dira azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handituz jardueraren edukari balio erantsia ematen ez dioten jarduerak.

Hirugarrenekin hitzartutako jarduerak diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 20 gaitasun badu eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, azpikontratazioak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Kontratua idatziz egitea.
- b) Diru-laguntza ematen duen erakundeak aldeztu aurretik baimena ematea, oinarri arautzaileetan zehazten den moduan.

Hamabigarrena: Hitzarmenaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntzaren **Ama Guadalupekoa Ikastetxeak** onuradunak udalean eskatu ahal izango du, diruz lagunduriko jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, hitzarmen hau aldatzea ezarritako epeak zabaltzeko, emaniko zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatia ustekabeko egoeretan gertatzen bada edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak bada, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Udalak hitzarmen hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan harturiko baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten badu lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

Hamahirugarrena: Hitzarmena ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea.

Dirulaguntzaren **Ama Guadalupekoa Ikastetxea** onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du dirulaguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorren 37. artikuluan eta hurrengoetan; eta 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorren Arautegia ezartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91, 92, eta 93. artikuluetan. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikirikoa arrazoiak edo behar bezala justifikaturiko bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

Hamalagarrena: Datu pertsonalak babestea.

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoak eta 2016/679 (EB) Erregelamenduak (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak) ezarritakoa betetzea.

Hamabosgarrena: Lan arriskuen prebentzioa.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

Hamaseigarrena: Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazioaren alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Hondarribiko Udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, non bertan onartzen den azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta urriaren 1eko 40/2015

Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Hamazazpigarrena: Eskumeneko jurisdikzioa.

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan eta eragin bakarrerako, idazpuruan adierazten den idazpuruan.

ALKATEA	Ama Guadalupekoa IKASTETXEKO ZUZENDARIA
	
UDAL IDAZKARIA	

